

**JEAN BAPTISTE ARXÛ IDAZLEAREN
MENDEURRENA**

MAULEKO AUZAPEZAREN AGURRA

Maule, 1981-VI-27

Lougarot jaun auzapeza

Messieurs,

Notre vénérable Maison Commune est honorée d'ouvrir ses portes, avec la complicité de SU-AZIA, à quelques uns des plus éminents membres de l'Académie Basque. Il m'est très agréable, en qualité de Maire, de vous apporter ici l'AGUR chaleureux de mes compatriotes et de vous souhaiter la bienvenue dans notre cité, patrie du grand historien basque Oihenart et des frères Jean et Henri de Sponde.

J'aurais aimé m'adresser à vous dans la langue d'Etxahun, non dans celle de Molière et j'espère que vous ne m'en tiendrez pas rigueur. Comme beaucoup de Mauléonnais de mon âge, j'ai vécu mon enfance dans cette dualité qui caractérisait Mauléon et Licharre. Et si j'ai été bercé, imprégné par le verbe souletin, je suis comme ces mélomanes qui apprécient toutes les nuances de la musique, mais qui ne savent hélas pas s'exprimer avec un instrument. C'est là une lacune qui, plus encore en cette circonstance exceptionnelle, m'emplit de regrets.

C'est une autre lacune que vous comblez aujourd'hui en me révélant l'existence d'un "alzürükütar" de talent, l'écrivain Jean Baptiste ARCHU. Et je mesure là l'étendue de mon ignorance sur tout ce qui touche à l'identité et à la culture de mon pays.

Je me réjouis à ce sujet, de l'existence et de l'activité d'une association telle que SU-AZIA qui s'est donné pour tâche de rassembler toutes les richesses littéraires de notre beau Pays de Soule et par là-même de lier plus étroitement les Souletins à leurs racines. Je sais que malgré des moyens modestes, mais grâce au travail patient et obstiné de quelques uns comme le père Casnave, nombre de documents ont déjà été réunis et édités, sauvant de l'oubli ceux qui au travers de leurs oeuvres, ont traduit l'âme profonde des Souletins.

J'ai, à ce sujet, une suggestion à formuler, dans la mesure où notre projet de réaménagement intérieur de l'ancienne mairie pourrait être rapidement réalisé. Une salle pourrait alors être consacrée à l'Association SU-AZIA, qui, si

elle le souhaite, déposerait là le fruit de ses recherches, permettant la constitution dans la capitale de la Soule, d'un fonds d'histoire et de littérature locales, que nous essaierions d'enrichir dans l'avenir, les possibilités de reproduction facilitant l'accès à des documents qui actuellement sont conservés avec un soin jaloux par des particuliers.

Ainsi pourrions-nous collaborer, encore davantage, à l'oeuvre entreprise par l'Académie Basque qui trouve, je l'espère, aujourd'hui, dans l'engouement de la jeunesse pour sa langue et sa culture originelles, la juste récompense des efforts et des travaux qu'elle mène depuis longtemps.

Ces travaux ont pour cadre ce soir notre salle du Conseil Municipal. Je souhaite qu'elle retienne longtemps l'écho de cette séance exceptionnelle. Nous serons heureux, à son issue de vous convier à un apéritif amical dans la salle voisine, en espérant que ce passage de l'Académie en Soule ne restera pas sans lendemain.

SU-AZIAK “hunki jin” EUSKALTZAINDIARI

Maule, 1981-VI-27

Frantxua Daskon-ek

“Hunki jin”, zier, Euskaltzaindiko Jaunak!

Xiberuko lurrak eta Xiberotarrek uhure die egün, zien errezebützia. Guretako zien bijitak erran-nahi handia badü, hirugerren aldikotz Euskaltzaindia Xiberulat jiten dela.

Heben giren Xiberotarrak ez gira jinik küriustarzünez, bena bai ziekin ber sailian lanian ari girelakotz: Euskararen geroaren segürtatü nahiz.

“Hunki jin” arren, SU AZIAN eta kultura sailian ari direnek etxi: UHAITZA BEDAUA, XIBERUKO ZOHARDIA, IKASTOLAK, IBILKARIAK. Zien bijitak pitzen dü gure bihotzetan esperantxa handi bat.

“Hunki jin”, zier, KURUTXE XURI altian, kurutxe xuri hori beita guretako MATALAS famatiaren oritzapena.

Gure oritzapenak duatza ere Euskaltzaindian lanian ari izan diren Xiberotar Guillaume eta Ddeddue Eppherre, Andere de Jaureguiberry, Albert Constantin eta bestier. Hurak junik dira, bena txutik baratzen den haritx horrek badü beti xiberotar adar bat: Zü Jan Luis Davant hor zira. Eta ikusten dügü Santa-Grazitik abiatürik beste xiberotar urzo bat hegalak emanik pausatzerä.

Zühainak adarra ekarten eta adarrak zühaina bizierazten dian bezala, bilküra huntarik egürikitzen dugu gure harremanen ziekin barnatzia.

Bena nur da ziekin harremanetan sartü nahi den XIBERO hori, zazpitan txiapiena?

42 herrietan, 18000 bizizale, orai artino, laborantxatik eta Maule ungürian ziren lantegietarik bizi izan gira.

Azken 15 urte horietan Xiberoa hasi da desplomatzten:

- Gazte hanitx jun da lan txerkatzera bestetarat.
- Bortüko laborantxa üko egiten ari da.

- Mauleko lantegiak aldiz espartañari josiak, biharamen beltzer so.
- Atarratzeko aldiak galdü dü azken 15 urte horietan 20 % bizizale.
- 30 % etxalte badira segidarik gabe.
- Egün kuntatzen dira 500 lan txerkazale.

Eta kultura zertan da?

Xiberuko karriketan euskara nun nahi entzütan da orano:

- 60 % emaiten baitie euskara.
- 10 bat herritan euskara baliatzen da pürki, bai etxian, bai elizan, bai plazan, bai komertzioetan.

Arren 7 probintzietarik Xiberuan da euskara mintzaturikenik, adineko jentetan.

Bena haurretan gütienik. Etxahun eman dian ütürri hori agortüko da? Oriko txoriak ez dia haboro pastoral, olerki, kantore eta dantza huntzalerik emanen? Gipuzkoan, Bizkaian hainbeste arrakasta dian kultura itzaliko da?



J. B. Arzü idazlearen mendeurrena (Maule, 1981-VI-27): *Ezkerretatik eskumatara*: Lougarot, F. Daskon, Fr. L. Villasante –*Euskaltzainburua*– eta J. L. Davant

Xiberotar zunbaitek zin egin die Xiberuko kultura biziko dela eta ez dela beste biderik gure Herriaren bizierazteko. Nur dira horik?

1. UHAITZA: batarzün hau altxaturik izan da, orai diala 3 urte, kultura sailian ari diren talde laguntzeko, materiale aldetik.
2. BEDAUA: 3 urte huntan antolatzen dütü kultur-astiak Xiberuan.
3. XIBERUKO ZOHARDIA: hunek dütü dantza eskolak organitzatzen, beztitzen, irakasten, Xiberuko kulturaren dantzak beittü, olerkiarekin, lehen lekia.
4. IKASTOLAK: heben badütügü bi ama-eskola eta lehen-maila bat. Diala hamar urte, 12 hurrekilan zabaltü ziren, egün 40 etarat heltürük gira.
5. IBILKARIAK: badira Xiberuan, Aña Lexardoy Barkoxekua eta Marcel Lerdou Eskiulakua, herriz-herri ibiltzen direnak eskoletan, euskara irakasten.

6. SU-AZIA: Diala 3 urte sortu den batarzün hunen xediak dira:

- Euskararen hedatzea eskoletan, elizetan, karriketan.
- Euskararen ikasteko lan-tresnen egitia.
- Gai-eskolen, ikastaldien eta alfabetatziaren antolatzea.

Batarzün horik denak egün juntatzen gira, zier dei baten egiteko: Badügü oroek gaintika gogua, bai-eta lan pasta. Beña xede horier gainaren hartze-ko, hutsartetarik egin lana ez dügü ihuntik ere aski. Orai behar dügü langile jakintsu baten lagüngua. Hori nun atzaman? Nula paka? Horik dira gure arrenkurak.

Gure ustez zer lan lüke langile horrek?

- Xiberoan eta alde kanpuan diren paper zaharren ikertzea eta lantzea.
- Xiberuko ixtoriaren argitza eta ezagüteraztea librien bidez.
- Eskoletako lan tresnen antolatzea.
- Xiberuko ohidüren eta üsantxa zaharren agertzea.
- Etxetan barreiatürük diren kantore, musika, olerki eta alegien biltzea eta hedatzea.

Ikus ginezake ere gizun hori kultur-talden sustazale eta gogo hunezko jentzen sustengazale.

Gizun hori beharrezkoa da. Gure xediak Euskaltzaindiaren üdürizkoak dira. Euskaltzaindiak badü lan Xiberuan egiteko eta prest gira lagüntzeko. Proposamen horrekin ados bazide, ikusten ahal dügü beste egün batez nula bide horri alkarrekila jerraik.

Xiberuko zelia beltz bada alde batetarik, egün argitzen hasten da beste aldetik: Euskaldun izatia hazten ari da; geroago eta haboro gaztek, zernahi kostarik heben erro hartzen die. Horik ikusten dira gai-eskoletan, bai eta lan-tegi berri altxatzetan. Sekulan bezala herriko gizonak beren artian biltzen dira eta pentsamentükatzen geruari bürüz.

Indar horik oro bildürik haritxaren üngürian, eztüğü Xiberuko adarra eihartzera uztekua.

J. B. ARXU-REN MENDEURRENA

Maule / Altzürükü

1981, Ekainak 27-28

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Mauleko jaun mera
"Suazia" batasuneko jaunak,
Jaun-Andreak: Agur guztioi!

Zuen deiari men eginez, eta Arxü jauna bere mendeurrenean ohoratu nahirik, Euskaltzaindia Zuberoan da egun eta bihar. Mila esker zuen gomituatik! Zinez, Zuberoara gatozen bakoitzean halako zirrara eta zimiko gazigozoa somatzen dugu bihotzondoan. Euskaldun guztiok nabaitzen dugu, alegia, Zuberoak eta Zuberoako euskalkiak badutela beste eskualdeek ez duten zerbait, badutela apartekotasun bat, tira eta erakarmen indar berezi bat bere nortasun eta aspalditasunagatik. Zuberoako kantoreak EuskalERRI guztian dira estimu handitan. Izan ere, beren sentimendu eta barnetasunagatik ez dute parerik.

Honelako paradak baliatzen ditu Euskaltzaindiak iragan denboretako euskaltzale handiak ohoratzeko, horiei buruz ikerketak sustatzeko eta horien etsenploa eta miraila egungo euskaldunen begietan jartzeko; era hortara haien lanak egun ere segida bat izan dezan amoreagatik.

Pozik jakin dugu Arxü jaunaren mendeurren honek bidea eman duela Arxü-ren zenbait gutun, argitaragabe zeudenak, edireiteko. Horrela Arxü bera nor zen eta haren obra hobekiago ezagutu ahal izango dugu.

Ni euskaltzainburu sartu nintzenean, 1970ean, hemen egin nuen karguan sartzea, Salaberri-ren mendeurrena ospatzearekin batean. Gero, Davant jauna Euskaltzaindian sartzean eta Aita Lhande-ren mendeurrena ospatzeko, berriz ere hemen izan zen Euskaltzaindia.

Egun laugarrenez sartzen da Zuberoan Euskaltzaindia. Eta sartzen da Arxü-ren gorazarrezko festetan parte hartzeko.

Arxü jauna alegilari, gramatikalaria, itzultzaile eta eskola emalea zen. Berau da, dudarik gabe, Zuberoak euskarari eta euskal literaturari eman dizkion gizon handietarik bat. Ez noa haren gainean deus esatera, zeren egun eta bihar izango baita ni baino mintzatzailerik gaiagorik J. B. Arxü jaunari buruz.

Jean-Louis Davant dugu Euskaltzaindian Zuberoa eta Zuberoako euskaltziaren mandataria. Eta lehentxeago edo geroxeago beste hauek ere izan ditugu: Eppherre anaiak, Madeleine Jaureguiberry, Pierre Bordazarre, Pierre Eyheramendy, Pierre Lhande, Constantin, Jon Mirande, D. Peillen, Cazeneuve, etab. René Lafon jauna ere badakigu zein atxikia zen Zuberoari.

Denbora zaharretan, berriz, anitz euskaltzale handi izan ditu Zuberoak: Zalgize, Oihenart, Maister, Chaho, Abadia, Etxahun, Intxauspe, Hegiategy, Salaberri eta Arxü jauna (zeinen ospaketa baitugu).

Gure gogo eta nahi bizia da euskaltzale handi horien erronka honek etorkizunean ere segida izan dezan. Zuberoa, alegia, beti atxikia izan dadila euskaldungoari, euskarari eta bere eskualdeko euskalkiari.

Anitzetan esan da euskara apez eta fraideen gauza dela xoilki. Horietaz landara beste inori ez diola fitsik axola euskaragatik, baina hori ez da egia. Arxü jauna ez zen apez eta ez fraide. Sauguis edo Zalgize ere ez, noski; Oihenart ere ez, Xaho eta Abadia ere ez, Madeleine Jaureguiberry ere ez. Guzti hauek zuberotarrak ziren eta euskararen eta euskaldungoaren arrangura sentitu zuten. Euskaldungoaren alde zerbait egin nahi izan zuten eta egin ere zuten. Xede hauen faboretan beren indarrak eskaini zituzten.

Pozik entzun ditugu “Suazia” batasunaren xedeak. “Suazia”: zinez izen ederra! Hauts azpian, ilaunen pean, gorderik den sua, txingarra edo ilintia. Su berria pizteko balioko duen ikatz bizia. Hori izan nahi duzue zuek Zuberoan. Jaso ditugu zuen arrangurak eta kezkek. Zuberoaren euskaltasuna, euskaldungoa nahi duzue altxatu. Jakin ezazue Euskaltzaindia bihotz osoz izango duzuela zeuokin, xede horien fabore.

Jean Haritschelhar jauna, Euskaltzaindian euskaltzainburu ordea duna, mintzatuko da fite puntu honi buruz: Euskaltzaindiak zer egin lezakeen Zuberoaren laguntzeko. Zuberoatik ni baino hurbilago bizi da bera, hemengo berri nik baino hobekiago daki, hemengo beharrak eta premiak ongi ezagutzen ditu, eta bera mintzatuko zaizue xehetasunekin gai honi buruz.

Euskalki guztiz berezi eta zahar-zahar baten jabe da Zuberoa. Mintzatzailerik guti ditu, zorigaitzez. Zer egin euskara Zuberoan indartzeko eta azkartzeko?

Zuberotarren atxikimendua beren euskalkiari ezagutzen dugu. Alde honetatik gu bizkaitarrok bezala zaretela uste dut. Eta ez da miresteko. Euskalki biak muturretakoak dira, Euskalerraren bazterretan direnak. Eta bata bestetik urrundenak egonagatik, zenbat aldiz gertatzen da hitz berberekin topo egiten dugula! Esate baterako, *zuhandorra* (“le cornouiller”) hitza Zube-

roan esaten da eta bai ni bizi naizen Arantzazuko auzoan ere. Horrek zer esan nahi du? Dudarik gabe, horrek esan nahi du erraietan, barne muinean bat garela, desberdintasun guztiak gora-behera, euskalkiak baino lehenago hor dela euskara, guztion euskara. Euskaldun orok bat egiten dugula, alegia.

Euskaltzaindiari maiz egotzen zaio aurpegira euskalkien etsaia dela; euskara batu bat denontzat berdina nahi duela, eta hori euskalkiak gaitzestea dela. Baina ez. Ez da hori horrela. Euskaltzaindiak nahi du, bai, euskara molde bat ororentzat berdina, zenbait zereginetan erabil dadin, zeren-eta hori gabe ez baitu ikusten euskara salbatzeko biderik. Baina horregatik ez da euskalkien etsai. Nahi du nork bere euskalkia lantzea. Batak ez du bestea kentzen. Bata behar zen egin eta bestea ez utzi, Kristok behiala esan zuenez.

Euskaltzaindiak muntaberria du Dialektologi batzordea. Euskara mueta guztietako gauzak amultsuki eta serioски biltzea da batzorde honen xedea. Ondasunak oro bildu, atxiki. Zertako? Gero baliatzeko, eta, gaixtoeneko kontuan, zenbait hil balitez ere, nola ziren jakiteko bidea izan dezagun. Izan ere, biltzen ez diren apurrak galtzeko periletan daude.

Euskaltzaindiak, ordea, euskararen bizitzea du xede, hori nahi du aitzinatu eta bizkortu. "Suazia" taldearen xede berbera du, beraz. Ea biek elkar harturik zerbait egiten ahal dugun Zuberoa, euskara eta Euskal Herriaren alde! Halabiz.

JUSEF EGUIATEGUI

Maule, 1981-VI-27

Junes Casenave-Harigile

Gure Eüskaldün jakitaiak ürrats handiak egin dütü azken urte horietan, bereziki ikertzez gure aitzinekoen lanak. Txomin PEILLEN-IBARBURU ezagütürik da Eüskara lan hanitx huntü dialakoz. Ikerle erdotz, idatzi dütü eleberriak, saill hanixko ere agerkari hanitxetan eta berriki ederki antolatü dü gizon korpitzaren Eüskara hitzen Doktorrako tesis bat, uhure handieneki Bordelen hunartürik izan dena. Lan hunen eni irakurrarazteko xügüntarzüna üken dü eta erran giniroke gure mintzoaz gero egin lizateen lanentako pasta haitia datiala. Orai berri orano Pariseko Bibliothéque Nationale-ko zoko batetarik elki deikü esküidatzi bat, edo untsaz erraitera hirur idatzi, Jüsef EGUIATEGUI-k eginak.

Lehena: Filosofo hüskaldünaren ekheia, Ziberoko eüskara hobetian, 222 orrialde dütianak, 223 gerrenetik 364 gerrenialakoak galdürik direnak, berrogei berezita edo kapitülütan.

Bigerreña, 450 orrialde eta hirur zati dütianak:

1. **Arlande OIHENARTEN errefrauak**, 538 atsotitz frantzesez eta eüskaraz.
2. **Oharkerak, esangiak eta bibetak**, 84 orrialde eta 816 aipameneki, filosofiaz eta kondairaz, frantzesez eta eüskaraz, kartillaren edo alfabetaren herroka jarraikiz.
3. **Mündiren berritziak** (Musde Etxeberriren gogamenak), 160 orrialde-tan, frantzesez eta eüskaraz, kartillaren herrokan.

Hirurgerrena: Aberastarzün güzien giltz bakhoitza, etxaltiaren joanaraz-tiaz. Ez niz heben pekatzen lan horien oso ikertzera, bena nahi nüke gogozka zonbait eman eta amiñi bat argitü nur zen EGUIATEGUI eta zer deikün.

Aitortü behar zaikü oraiartinokorik ez dügüla ezagützen. Bizi izan da hamazortzigarren mentiaren erditsütan, zeren bere lehen libüría “Filosofo Hüskaldünaren ekheia”, agertzekoa zen 1780-ian, Alemanian, Frankfurten. Badakigü haatik errejent zela, Ziberohan nunbait. Nun? Eta nunko zen? Deüs xüxenik ez dakigü. Bena bere hiztegiaren arabera eta xehetarzün zunbaiteta-rik erran daite ez dela Basabürüko aldeko, eta segürrago Pettarreko eziez

Arbaillako: üdüri lüke Amikuzeko mügatik hüillan zela: Arüe, Etxarri, Pagona, edo beste herri Eüskara galdü dienetarik: Ozeraiñe, Jeztaze...? Ikusteko lizate haren herexarik ediren leitianeze herrietako edo parropietako libürietan.

Gaiza bat ageri da: jakitate handiko gizona zen. Filosofiaren arrenküra bazian, hau beita "Filosofo Hüskaldünaren ekheia" libüriaren geia. Ez zen Eüropako filosofoak beno berantago: ezagützen zütian idazle mentekidiak, bena lotüz bere berezgoari. Irakurri zütian Greko, Elizako Aita, Frantzes eta Espaiñul idazliak. Oroen gaiñetik maite zütian Eüskaldün idazliak, ezpere Eüskara untsa baliatzen zienak, hala nula XURIO eta bere *Kempesa edo Contemptus mundi* (1720), JUAN DE BERIAIN eta bere *DOCTRINA CHRISTIANA*, Eüskaraz bühürtia (1626), JOANES ETXEBERRI eta bere *Noelak ta berze Espiritual berriak* (1630), PEDRO ARGAIN eta bere *Exerzizio Espirituala* (1686), SARO DE LABORTARENA eta bere libüria, *marinearen eginbidiaz* (1642), JOANES LIZARRAGA eta bere *Jesüs-krixten Ordeñü Berria* (1571), PEDRO AXULAR eta bere *GEROKO GERO* (1641), ARNALDE OIHENART eta bere *ATSOTITZAK EDO REFRAUAK* (1657), *Gaztaroa neurthitzetan* eta *zaharora neurthitzetan* (1664), bai eta ere besterik. Bere jakitatia hedatü zian bidaje zunbait eginez atzerrietarat, bereziki zazpi Eüskaldün Eskualdetarat, heltübada itsasbazterrian lüzazago egoitez.

Ziberoko jakitatiari ageri da hanitx etxekirik zela. Kantoriak, ixtoriak, kateximak ezagützen zütian, Pastoralak ere bai. Hoik behin beno haborotan aipatzen deizkü; gaiza hunak dira beren heñian erabili behar direnak: "Eta zü aita, aspaldian ikusten eztüzia zure semia dela auhertü? Lana diala hügünt; merkatü, elizabesta ta *pastoral* bakhoitzari hütsik egiten eztiata?". Erakusten deikü nula herriko gizonek zütien emaiten: "gaiza hek dirade mündüko pastoralak: eztireia komediant halakoak, errege ta trükader izanik, beren galtza mutxetara ta lürretara ethortzen ta, errege zena atzo, herrestan egün".

Zergatik EGUIATEGUI Eüskaraz izkiribatzerä abiatü zen? Eüskara gosten dü, merexi dian bezala eta badaki bazter güzietan badirela gosten direnak: "Jakintziek dakie hüskara ama mintzoetarik dela bata; hortakoze ere Jinkoak eman zereioan obedantza güziak dütiata".

Bena orai entzün leitian bezala, haren denboran baziren bürü mehiak, beren jakite llabürraz hantü nahian zirenak eta Eüskara gütiesten beitzienak. Eta horra zentako, horien apaltzeko eta ixilarazteko, gure gizona Eüskarazko lanari lotü zen: "Hen ustiala hüskara lizatiala hiztera nahasi bat, ezkiderik, antzatagaitz jarraikirrik e'lükiana bakhoitzik. Halako basa-sinhestiaren garhaitzeko hartüren dügü heben nabasterria".

Bizi zen mentia deitzen zien "argien mentia". Hüüz beterik beitziren ordüko frantzes filosofo idazliak eta hoiaren arabera beste hanitxek uste beitzian ez daitekiala frantzesez baizik untsa idatz, EGUIATUI-k ez dütü egarten ahal Eüskara apaltü nahi direnak: "Ehünetan entzünik gaude hüskaratik

lankhei hunik sorth'eztaitekiala". Holako erranen egoixteko, pekatü zeion Eüskaraz idaztia: "Izanik ere botxia beno gogorrako, mardotüko dügüla düt sinhestia".

Jente kente horier ez dü balio arrazu handirik emaitia, zeren eta ez dian horientako izkiribatzen: "Ez gorrer entzüneraziz nahian, ez etare ütsüer ikhuseraziz egarrin". Eüskarak beste mintzajien pare erabiltia seskezi merexi dialakoz, bena orano bere aberastarzünak dütiälakoz eta zorrak deitzogülakoz: "mintzo haren ohoriaren gatik egiari zor düdan eginbidiaz düt lan hau besarkatü". Eüskaraz ere gaiza güziak aipa ditake: "Hüskara zertan nahi hitz arrotzetaz paira daitekiala".

Bestalde, gure idazliak deikü nahi diala "erakutsi hüskara xahüki jar daiitekiala" eta, nurk jaki, ez zianez orai diala bi mente ikusten Eüskarak bazükiala berantago arrakasta franko eta beste idazlerik izanen zela Eüskararen jakindantago eta Eüskarari lotürrikago: "Hala ere mintza ahal daitekiala ta ni beno langile hoberik diano, hetarik sortüren dela haren ohoriaren gatik oraño hanitz berzerik". Eta berak ürrats zunbait eginarazi balinbadü Eüskarari, uste dü bestek gero argitürenago diala eta hasi dian sailla barnago ikertüko: "Nere althetik ageri dena, eztirot ükha eta aithortzen düt, eztüdala hüskaran azardün aski ta haren edertarzünak aski erran, ahal nadin haren barnerat behar bezala ari; alabadere gogoan düt, haren arakoiatarik zerbait argitü düdala, berze batek porrogatüren diana".

Zentako EGUIATEGUI-k egürikantxa badü Eüska gero biziko dela eta azkartüko? Diala bi mila urte iraganik, haren mentian egünko egünetan bezala ari ziren eia zer ote zen mintzaje berezi hori, nuntik zütian erroak, zer hadadüra üken zian eta nulaz Pirineoko zoko batetan bizi zaitian orano. Zer üdüri zaio EGUIATEGUI-ri? Segür dena da Eüskararen goratarzünaz hunkirik zela eta behar zaikü ikusi nula goraiptzen dian.

Eüska da lehenik ama mintzoa: "Jakintziek dakie hüskara ama mintzoetarik dela bata". "Hartakoz ere Jinkoak eman zereioan oberantza güziak dütiäl". Aita LARRAMENDIREN ondotik erraiten deikü ere "ama mintzo dela, brobantza güzietzaz ikurraitürrik dena, hetan ere lehenetarik dela". Ama mintzo bezala, aspaldian sortürrik (erran giniroke mündian hatsarrian, oraiko ezagütziälala bardintzez mente hartako jakina): "Espaiña güzian lehen mintzoa izanik, diერი arrotzek mendietara bazterrarazirik, hirur mila urthe hetan dagoela hetan kokatürrik". Eta oihü hau: "O ama mintzoa ezipaliz, xoko bate-tan lüke bere ama, eztelarik ageri ihon ere".

Nulaz Eüska ama mintzoa da eta nuntik dü indarra? Segür ez da gizonen obra: "Ezi galdürrik balego osoki, halako bat jendiak egin derokiala? Nik ja diot ezetz, ez eta ere lür güzian dirodian jakintzüenek, ehün urthez lanari lothürrik ere halako obra e'lirioiekiela egin". Bena "hantik arren gogamena, hüskara Jinko Jaunaren obra dela". Han hor, EGUIATEGUI-k bere sinestia airtzen eta bermatzen dü: Ama mintzoa delakoz, ez delakoz bestiak üdüri

eta mentez mente berra iraiñ dialakoz, Eüskara ez da sortürrik izan ahal Jinko Jaunaren ganik baizik. Horra zer gatik gure filosofoak galtatzen deikün Jaun Jinkoa gores dezagün “berak egin dian mintzoari beha egoitez”. Heben nahi nüke erran hitz hoiek oritarazten deitaiela beste Ziberotar kartsü bati. Ezi, zunbatetan, Madalen de Jaureguiberrik ez deit zabaltü ber gogozka, bena hitz hoik berak aipatü gabe, lotsa bat bezala zialakoz. Eta ordian üngüratzen zian bere elhesta: “Txoriari gure Jinko Jaunak eman deio bere mintzoa: ez da okertzen bere txiunta ta kantorian; hala hala gük Ziberotarrek sortzapenez badügü guria eta mintzatzen girelarik bagoatza beti xüxen, beharriak ez beitü hunartzen ahal oker mintzatzia”. Eta galto bat bezala egiten zaitadan: “Holako gaiza handirik ez giniro entzün apez baten ahotik baizik”. Zer nahi izanik, EGUIATEGUI eta MADALEN DE JAUREGUIBERRI kartsüki gure mintzoaz ari izan dira.

Ama mintzoa Jinkoaren obra denaz gaiñen, Eüskara gütiesten dienek “Jinko Jaunaren dohaiñak zankopetan dütie ezarten”, dio EGUIATEGUI-k. Holako jenter, gor eta ütsü beitira, ez dü balio sinisteraztia. Eüskaraz “baliatü nahi ezten hüskaldünak, berzeren gaiñtik abantaila ükhen dütianetzaz”, bere büria dü apalerazten. Holako jentek, beitziren ere ordian egün diren bezala, pustatzia die irabazten: jente txarrak, ezdeüsak, ahalkegarriak. Arrotzek hobeki ikusten die, “dakigünian urthe baten barnen, jesuita batzü, kastillanek, ikhasi diela Loyolan hüskara konfesotzeko doia, hirurgerrenian aldiz peredikatzeko behar zeratena”. Ezi Eüskara baliatzen ahal da eta küpüsten gogozkaren berezküntza güzietara: “Jesuita hek ere zien aitortzen hüskararak ekidar güziak zütiala ta gramatikaren itzala dianak egia hori ükha elirioala”.

Zunbaitek balin badie Eüskaraz “basa sinhestia”, EGUIATEGUI-k dereio egiazko sinestia, “ohore” hitzaz izentatzen diana: “Mintzo haren *ohoriaren* gatik, lümari niz heben lothü”. Uste hun badü hortan ez datekiala azkena: “Sorthüren dela haren *ohoriaren* gatik oraño hanitz berzerik”. Eüskaldün güziek “ama mintzoari *ohore* dükie, Jaun Jinkoari ere, berak egin dian mintzoari beha egoitez”.

Eüskara ez bada gizonek egina, bena Jinkoaren obra bada, Eüskaldünek zor dereioen ohoria nula eman? Eüskaldünek, Eüskaldün izatekoz, Eüskara mintza ezen beren artian, eta beitira ere Jentiak besten axolik ez dienak, Eüskaldünen eta Eüskararen etsai büragertzez, hen ertzian ere mintza.

Hartakoz, ez badie libürietan barnatzen ahal, ikusbide bezala har ezen “hüskara baizik eztakiana... merkhazalia beno gizon perestiago datekiala ni berme”, dio EGUIATEGUI-k. Eta orano: Eüskararen “bokatziaz zerbait erran behar badügü, dügün galtha non den proba agerragorik hüskaldün menditar baten behatzian beno”. Gure Eüskaldünek Eüskararen mintzazen dakite librietan ikasi gabe, bestek beren mintzoan haiñbeste lan eta denbora behar dienian heñ bat untsa elestatzeko. Eüskaldünak etxen dütü ikasi bere mintzoaren arauak eta barnetik emaiten dütü batere okertü gabe, “hartan dirade hüskararen egokiak, alozia ta gaillardia egiazkoak”.

Mintza, idatz ere Eüskaraz, bai bena ez nula nahi. EGUIATEGUIk Eüskaldün erdierdaraz elestatzen dena hunets ez dezake, zeren ogen handi egiten dian: “Hüskaldüna... bere mintzoa eskeletürrik zinez, haren hilerazitera dabila”. Eta hau: “Ahalkegarri da hüskaldün ezkiribazalek eztakien hüskara”. Edo. “Egar eztirot hen hüskara txarra”. Halakoak ezarten dütü apal beno apalago: “Bohamien kastatik datekia? Hek bezala beren artian hitzauri txar bat oratürrik, tximinoek, mintzazale balaude, e'lükiena nahi”.

Ene herrian erraiten den bezala, Eüskara plaiña dezen erabil. Hori da ere EGUIATEGUI-ren nahiküntia: “Hüskara xahia dezen mintza da ene egarria”. Berak egiten dian bezala: “Erakutsi badüt hüskara xahüki jar daitiala probatürrik dago”. Hortako, bereziki etxek bürasoetarik üken dügüna: “Ik-hertzen deno zahartarzünian, xahiago da bere aberastarzünian agertzen”.

Horra zunbat EGUIATEGUI Eüskarari etxekirik dagon eta nula gosten dian. Zentako? Badaki mintzo *ederra* dela eta ikusarazi nahian da, beraren üdüriala ez beitu aski egin: “Eztüdala haren *edertarzünak* aski erran”. Bere zazpi hizkondietan “sekülan bezaiñ *eder*” agertzen da.

Nuntik Eüskarak elkitzen dü bere edertarzüna? Ez da düdar.k: berartarik. Ba dütü hitz zaharrak, etxeki edo berriz bildü behar direnak: “Hetan dialakoz hüskarak, berzeren khinper, bere *edertarzünak* franko. Ezi ikhertzen deno bere zahartarzünian, xahiago da bere *aberastarzünian* agertzen”. Bena berartan ere biltzen dü indarra zer nahi beraxkatan mintzatzeko: “Gauza berrietan ere, berze mintzoak bezala, beraren izairiatik hüskaldün ükhüdian izenak arozta litiriola”.

Gure mintzajia, ama mintzo bezala, berezia beita, bere zazpi hitzkondietarik elkitzen dü aberastarzün berezi bat eta ez dü “berzeren arropetarik beharrik”. Ez da bestien arabera, hala nula “Italiena, Frantsesa, Espaiñiola, laur ehün urthe azkenetan ari direnak bethatxüz ta arrapaintzez osoki khanbiatürrik”.

Nulako den Eüskara, beha dezagün EGUIATEGUI:

“Hüskarak ekidar güziak dütü.

“Llabürrena ta ederrena;

“Ezi ene arauiala ezta mintzorik llabürrago ez eta azkarkiago hüskarak beno gaizak azaldüren dütianak.

“Mintzorik hüskara beno bere hitzen egokian hobedantagorik denik eztela.

“Batere jende güzier mintzatzian haren garthardia dianik.

“Ez etare bere elhestan haiñ llabür denik.

“Bere araudian ta ardiestian batere jarraikiagorik eztela.

“Alozia bat diala bertze mintzoetan edireiten eztena.

“Batere hüskara bezaiñ aberatsik ta naharorik eztela.

“Ama mintzo dela, brobantza güzietzaz ikurraitürrik dena, hetan ere lehenetarik dela.

“Hüskara dela net posmagarri, bere zazpi hitzkondien gatik, direnak: Nafarroako, Züberoako, Gipuzkoako, Bizkaiako ta Alabako hitzkondietan.

“Herri batian galdü dütian hitzak, berzian beitütü edirenen.

“Hüskara dela mintzo bizia ta jakintzia.

Eüskarari oso lotürik, Eüskalzale idazle, EGUIATEGUI büragertzen zaikü ere aberzale. Nunbait salatzen dü Eüskaldüner axol üken dezen beren ohidürez, Frantzia hen erautzi nahian dagoela, üsнатzen bazian bezala frantzes irailpena bertan izatekoa zela. “Nabastarria lizatekia soberarik heben, erran bagena langile haiñ motelaiak Züberoko Estation partez herriren ezagütze seiñale bakhoitzik ükhen eztiela ez etare Jaun Sindiketarik, laidore merezietarik dremendena. Laido balizekie obra hobeagoa egingei die, balima, datekenianeko Herria Basa Nafarra den zalantzan; ezi aidürü denak, balima, hen pribilejioek dükiela ordüz edo berant aizoenek dien inharrausia ta hen zühürtarzünak adrastü dütie, balima, nola bihürtüko diradian libürü txipiaren zokhorri gaberik.”

Bigerren libüría & 25

Zer nahi den, Eüskaldüngoari etxekirik dela argiki ageri da. Zerk arren egiten dü Eüskaldüngo? Eüskararak. Zeren “mintzoen banaitiak dütü dierri güziak egiten”. Eüskara gal, ez da haboro Eüskaldünik ez eta Eüskaldüngoarik: “Deizogün galtha datekianian hartara heltü, zer datekian hüskaldüna?”. Ez Eüskararik, ez Eüskaldünik, ez Eüskaldüngoarik, ez etare herridirik edo aberririk. Xüxen den bezala, hitz gaitzak dütü Eüskaldün Eüskara galtzera ützen diententako: “Etare nola gogatü ezten, bere ama mintzoa dieno mezetzatzen, herria diela arnegatzen”. Edo orano, ez herria, ez mintzoa ez dezake berez: “Ezi sortzepena denian eder, ta mintzoa arauiala, ükhatzen dütiának biak herriari dago traidore”.

Eüskal herridia bat da eta EGUIATEGUI-k güzientako idazten dü: “Obra dago heben hüskaldün güzier eskentürik”. Eskualde güziek bat egiten die beren Eüskaldüngoan: “Nadin alde batetik edo berzetik seme, hüskaldün niz”. Hatsarretik ez zen arterik Eüskaldünen berezteko eta hola nula hedatü zen Eüskara: “Alabatarrek Züberoala, Nafartarrek Basa Nafarrara, Gipuzkoanek Lapurdira”. Orano hola izan behar dü, mintzoak erakasten deikü Herria ez daitiala mutz, ez dela ez Hegoalderik ez Iparralderik, berak Herriaren batarzünetik indarra ta aberastarzüna biltzen dütialakoz: “Herri batian galdü dütian hitzak berzian beitütü edirenen”. EGUIATEGUI ordian boztarioz jauzten zaikü: “Soberana ere lükiala beratan, bere zazpi hitzkondietaz”. Eüskaldüngo Eüskaran, eta Eüskararen edertazüna sortzen da batarzünian bere zazpi eskualdetarik “hitzkondien gatik, diranak: Nafarrakoak, Züberoako, Gipuzkoako, Bizkaiako ta Alabako hitzkondietan”.

Hanitxetan entzützen dügü Eüskara ezdeüsentako dela mentekideko bizitze huntan, Eüskal-Herritik elkx eta, ez dela emaiten. Eüskal-Herrian berian arren balio dia Eüskararen etxekitzia? Diala bi mente iraganik,

EGUIATEGUI-k orai bezala ezagützen zian “Eüskaldünen axolgalbia”, bai eta Eüskararen eta Eüskaldünen etsaiak. Azkarki aküllatzen gütü Eüskara mintza dezagün gure “artian ta etsaien erezian”. Eüskal-Herrian bizi Eüskaldün bezala: Eüskara beita gure mintzoa, Eüskaraz ari.

Gero ez lotsa: Eüskaldünak, beharra dükianian, beste mintzoetan bada-kike elestan. Mentez mente hola izan beita: zunbat guretarik ez da mündü gü-zia gainti hahunakatü, itsasbazterrak ikertü, trabarik batere gabe. Harremetan arrotzeki sartzeko ikasi dütie eta orai ere “abantailla gatik” ikasiren dütie. Nihaurk, EGUIATEGUI-ren arabera, ezagütü düt eta orano ezagützen düt ene herritar untsaxko emaiten biarnesa, espaiñula ta frantzesa franko ehi-ki, ez dielarik lüzaz eskolan egonik ez eta libürietan ikasirik. Hobe baizik, bes-terik dakitelakoz, zeren “aspaldian dago errana, gizona dela hanbatetan gizon nola mintzo suerte beitaki”. Hanitx aipatzen dügü elebitarzüna. EGUIATEGUI-k deikü bai, bena lehenik Eüskara, gure ama mintzoa dela-koz.



J. B. Arxü idazlearen mendeurrena (Maule, 1981-VI-27). Ezkerretatik eskumatarara: Lougarot, J. Casenave, Fr. L. Villasante —Euskaltzainburua— eta J. L. Davant

Azkenta huntan, bürüpen bezala, nahi niro oihüstatü nula EGUIATEGUI, diala bi mente goiti, Eüskalzale, aberzale kartsü izan zen. Gük haren arabera egin dezagün. Sailla handi dügü, bena bidia erakusten deikü. Berak kümitatzen gütü: “Ni beno langile hoberik diano, hetarik sortüren dela haren ohoriaren gatik oraño hanitx berzerik”. Harek bezala üken dezagün garra. Zer boztarioa haren ondotik erran ahal bageneza: “Ama hari dereiogün amorioa agertü” dügüla. Hor eskentzen deikün giltza: Eüskararen, herridiaren *Amorioa*.

Orano berriz goresmenak eta eskerrak Txomin PEILLEN-IBARBURU-ri EGUIATEGUI-ren lana ezagüterazi deiküna, bi mila oharpe-
nez lagüntürik.

EGIATEGI-Z GEROZTIKO ZIBEROTAR IDAZLEAK

Maule, 1981-VII-27

Jean Louis Davant

Hiru tandatan sailkatüko dütüt:

- hemeretzü-garren mentekoak
- bi gerlen arteko jenerazionea
- eta bi-garren gerlaren ondotikoa.

HEMERETZU-GARREN MENTEAN

Aitzindari dütügü bi eüskalzale handi:

– Antoine D'ABBADIE D'ARRAST, familiaz ene herritarra, Urrüstoi Abadiako baitzian aita,

– Augustin XAHO (eta ez “TXAO”) atarraztarra. Algarrekin euskal gramatika bat antolatü zien. Berek güti zien eüskaraz izkiribatü.

Baina besteak lan hortara lehiatü zütien. Indar handia üken dü horien aküliak, bereziki d'Abbadie d'Arrast-enak.

ARXU-z ez daiziet deüs erranen, izena aipatüko baizik, hortaz baitate biharko jaia. (Ortografia zaharrean “ARCHU” izana gatik, “ARXU” [ü] ahozkatzen da, eta ez “ARTXU”).

Beste gramatikalari bat, L. GEZE: “Eléments de grammaire basque, dialecte souletin” (1873).

Hatsarre hortan, beraz, lau izen, eta lauak gramatikalariak.

Emmanuel INCHAUSPE kalonjea (1815-1902) orok gogoan dügü. Hanitx izkiribatü zian, orotarik, baina beti ederki. Horren obretan berez deza-gün “*Andere Dena Mariaren hilabetia*”, lan personala eta ez ützülpenezkoa: “le chef-d'oeuvre du chanoine Inchauspé” dio Pierre Lafitte jaunak.

IRIBARNE apezak ützi daikü bereziki:

- Ciberouko guthuna, 1852
- Mysterio edo eguia gehienac, 1856
- Almanak Uskara, 1877
- “Sen Grat” (Oloroeko lehen apezküpiaren bizia), 1879.

J. B. ALTHABE apeza (+ 1911), Azkue-ren lagüntzale izan zen. Haren obretan:

- Ciberouko botanika edo lantharen jakitatia (Baionan, 1900-ean)
- Honkailu berrien enthelegia Ciberouko laborarier (1904).

Lan ohargarriak, zeren teknika geietaz güti erauntsi die gure aitzin-koek.

Félix LARRIEU medezi edo barbera (1863-1941), historiazalea izan zen frantzesez. Baina eüskaraz ützi daizkü:

- Uskal Noelen lilia
- Almanak Uskara (Irigaray apezarekin eginik).

Dominique SALABERRY mauletari notaria 1970-ko Urrietan, Mauleko merian edo herriko-etxean ohoratü zian Euskaltzaindiak. Haren lan ohargarrienak:

- “Chants populaires du Pays Basque” libürü famatia (1870)
- Uskalduner: beti aitzina xuxen xuxena dabila Uskalduna (1889)
- La mascarade (in Tradition au Pays Basque, 1899)

Clément d’ANDURAIN de MAYTIE, adesa bijitatü düzien etxe hortako semea eta horren jabe den anbaxadore jaunaren anaia (1878-1916) gazte-rik hil zen lehen gerla handian. Georges Lacombe-ren adiskide mina zen. Pastoral bat ützi daikü, De MENDITTE apezarekin hontürrik: “Uskaldünak Ibañetan” (1905).

Bestalde De MENDITTE-k katexima bat xiberotarrez idatzi zian, UHART Atarratzeko erretorarekin.

Aña URRUTY anderea, protestanta zen, eta protestant elizarentzat idatzi dütü bereziki ützüpenak.

ETXAHUN Barkoxe, orok badakigü nor zen eta haren obra ezagützen dügü, bereziki Haritschelhar jaunaren lanari esker.

J. B. CONSTANTIN Santa-Garaztarra (1847-1927) errejent egon zen Izpuran. Hanitx izkiribatü zian “Eskualdun Onean”, “Joanes Garaztarra” izenpetüz:

– olerkiak idatzi dütü, bereziki eüskal asteetan Antoine d’Abbadie-k antolatzen zütian primaketako

- prosan berriak arraheinki eman dütü
- Harrichabalet apez famatiaren bizitzea izkiribütan ezari
- Ziberotar eta Erronkariarren arteko solazak
- eta beste...

Xiberotar idazle inportanteenetarik dügü, bere denborakoetan gütienez.

HOGEI-GARREN MENTEAN

Hor bereziren dütüt bi epe: gerlen artea eta gerla ondoa.

GERLEN ARTEAN ezariko düt Aita LHANDE (1877-1955) nahiz aintzetik ere ari zen. Haren hiztegian bada lan izigarria, eta parte bat Mitikileko FOIX apez ohiarenetik hontürik (1865-1922).

Bestalde ziberotarrez güti eraunsi dü Aita Lhande-k: Gipuzkeraz trebeago ümen zen, hartan idatzi dü haboro, eta bereziki roman delako eleberri bat, “YOLANDA”.

Albert CONSTANTIN barbera (1873-1957), J. B. Constantin-en eta Santa-Garaziko dendariaren semea zen. Izpuran sortürik, Atarratzen hilik, lüzaz egon zen kontseilü jeneralean. Güti dü idatzi. Eskualzaleen-Biltzarrean egin zütian mintzaldi eli bat *Gure Herriak* agertü zütian.

ESPIL anaiak, Xoro Zalgizeko semeak, apezak ziren biak: bata Eskiulan erretor egon zen, bestea Garindainen (1884-1968). Hau ezagütü düt, Urrustoiko adorazionetan ama birjinari kontsekratzeko otoitze-peredikia harek baitzian egiten besperetan, behar bada besteak ez zirelako hortako behar bezalako trenpian. Bazkari oso hona eginerazten zian egün hortan Urrustoiko erretor Armagnague zenak (nahiz bera praubeki bizi zen) eta gaineala Uztaila beteä zen, zinez beroa...

Espil gaixoari erriñi bat ere egiten zaien saihetsetik erretor lagünek, ene haurrean arinska phürü edireiten niana. Baina harek hanitx ontsa trozatzen zian ama birjinari kontsekratzea.

Apez saintü eta kartsü bat zen, erregetiarra düda gabe, denbora hartako apez haboroexak bezala, hein bat jansenista segür ere, ideia zabalekoa ja ez.

Badakit bere parropiant gazte bati Bazkoak ükatzen zaitzola, pastoral errejentgoan hasi zelakoz.

Ber denboran oso zerbütanta zen, eta berriak arraheinki emaiten zütian Eskualdunear, eta gero Herrian, xiberotar garbi batetan.

Esquiulakoak berriz libürü bat egin zian sei-garren manamentiaz.

Jean de JAUREGUIBERRY barberak (1880-1952) frantzesez erauntsi dü haboroenik. Artikülü zombait badütü halere eüskaraz, hala nola “Hegoa”. Eüskal aditzaz lan bat hontü zian, püblikatü ez dena.

Haren arreba Madeleine de JAUREGUIBERRY, ohorezko Euskaltzain zenak ere eüskal aditzaz egin dü agertürük ez den lan bat. Bestalde moldatü zütian:

- eüskararen ikasteko metoda ttipi eli bat eskoletarako
- eta bi antzerki, ez dakit zoin, ez eta non dauden.
- Ipui biltzale ta erraile sotila zen.
- eüskal erakaskuntzaren alde peredikatü dü beti süharki, hitzez, obraz eta izkiribüz. (1884-1977).

EYHERAMENDY mauletar apezak ere eüskal metoda bat ützi daikü (1801) Idauzeko erretor egon zen lüzaz. Haren ikasle izan niz epe llabür batez Mauleko kolejoan.

Aipa ditzadan hiru ipuilari:

- Dominique BEHETY Larraintarra, Liginagako erretor hil dena diala hamar bat urte,
- Fabien HASTOY, izenez phürü ezagütiena (Betzülako aize epailea...)
- eta LANOUGUERE apeza, “Pette Xibero” izenpetzen ziana.

Bi horiek olerkiak ere hontzen zütien.

OXIBAR apeza, lüzaz misionist egonik hürrün, familiarekin beti eüska-raz leterakatü da.

J. B. MAZERIS apeza, Barkoxtarra, etnologiazko gaizetan idazle piper eta gatzdüna izan zen: Maskaradak, Tzintzarroskak, eta beste...

*PICOCHE*T apeza, Barkoxtarra hau ere, Xiberoko berrien emailea Eskualdunean, Barkoxen erretiratürük dagoena.

ETXEGORREN Hautarra, Mauleko erretor ohia (ene mintzaldi honez geroztik zentürük), Eskualzaleen-Biltzarrarentako lan eli bat agertü dütian Gure Herrian.

LIGUEIX Larraintar koblakaria, edo hobeki erran bertsülaria, aho-mihiz üken dügün handienetakoa, eta behar bada Beñat MARDO-rekin handiena dükegüna Ziberoan. Ezi bi Etxahunak aho-mihiz ohorezki ari baziren ere (lehenak Otxalde-rekin egin zian güdüka ezagützen dügü, aldiz bigarrena entzün izan dügü), izkiribüz trebeago ziren düda gabe.

Gazterik hil zen Ligueix, eta haren obretarik güti da baratü (Boneta eta txapela, Espus-espusen kantorea...), Beñat Mardo-renetarik bezala, mañetofonarik ez baitzen ordian zoritxarrez.

BORTHIRY-SALA beste Larraintarra ere bertsülaria zen. Haren lanetarik libürüxka batetan agertü berri dü Sü-Azia batarzünak.

Pastoral idazleak ez düütü ahatze behar, ezagütürik direnak phürü (zeren besteetarik ere bada):

- AGUER (bost pastoral hontü dütianana)
- APECETCH Salanka Barkoxtarra (Guillaume II)
- SALABER Ozaztarra, gure artean bizi dena.

GERLA ONDOA

ETXAHUN Iruri 1908-1979, bertsütan hasi zen Ligueix-ekilan. Bere hoberenean zen Larraintarra (Game-Zihigalat ezkontürik), Etxahun aldiz ez orano zohi. Hots Ligueix nausi ziala dioie adinetako jentee. Gero kontrekorik gabe baratü zen Xiberoan.

Zer nahi gisaz ere, izkiribüz trebeago zen Etxahun Iruri. Pastoral eta kantore hontzale bezala da handienik: bederatzü pastoral eta berrehün bat kantore (beren ahaideekin), zerbait da Ziberoko eta Eüskal-Herri güziko literatüra popülarrean.

Guillaume EPPHERRE zena (1911-1974), Aita Lhande-ren ondotik eta ene aitzinetik Ziberoko Euskaltzain osoa, Altzürükütarra, “Gure-Herria” agerkariaren бүрү egon zen lüzaz. Obra hanitxen aita izan da:

- artikülü
- peredikü, bai Ziberotarrez, bai Lapurtarrez (hortan ere oso trebe zen)
- fedezko gaizetaz libürü
- Etxahun xaharraz mintzaldi “club du disque basque” delakoak egin diskan
- litürgia lanak prunki: eüskal litürgia harek dü xiberotarrez ezari
- eta zonbat holako...

Anai apeza, Grégoire (Ddidue), gazterik zentü zaion (1929-1974), bera baino egün zonbait lehen. Eüskalzale süharra eta arraheina, beste hainbeste lanen egiteko bidean erori zaikün.

Beste hil handi bat: Jon MIRANDE zena (1927-1972), Pariseko Ziberotarra. Aita Garindaineko zian, Ama Sohütako. Aitzindari handia izan da, bai prosan, bai poesian, ziberotarrez, lapurtarrez, gipuzkeraz eta batuan. Ikus:

— Igela agerkariaren zerrenda (Hordago editorial-etxeak libürü batetan agertü diana)

— idatz-lan hautatuak (Gero editorial-etxean)

— Orhoituz, poema saila (Kriselu editorial-etxean)

— eta beste...

Bere idein gatik bizi denboran bazter ützirik izan zen (errelijionez paganoa zen, aberriz eüskaldüna, politikaz esküin-mütürrekoa). Hil ondoan phürü ezagüt dezagün, eta haren mereximentiak ohora ditzagün.

Hortako ez gitian ehün-garren urte büriaren haidürü egon. Daigün urtean, hamar urte dütüke haren hiltzeak. Zertako ez günüke gorazarre ta omenaldi batez ohoratü behar, bere Garindaineko aita-herri eüskalzalean? Edo Sohütako ama-herrian?

Bizietan hor dügü Dominique (Txomin) PEILLEN, Pariseko Ligiarra, Santa-Garaztar berria, Jon Mirande zenaren lagün arraheina, lan hanitxen idazlea ziberotarrez, gipuzkeraz eta batuan: haietan nobela, roman eta eleberrriak ere badütü. Orai berri, doktor igan da Bordeleko Unibertsitatean, aipamen gorenarekin.

Eüskal-Herrian bizi izan balitz, harek hartze zükean gaur ni nizan lekü hontarik aritzea, ez baitzatekean ihor egokiagorik. Agian berehala ützüliren zaikü erakasle bezala, orai Santa-Garazin zanko bat ja sartürrik baitü.

Beste bizietaz aipamen llabür bat:

— Marcelin HEGUIAPHAL Sohütarra, pastoral errejent bezala hain ezagütürrik, ez har gatik idazle bezala. Baina pastoral zonbait ez ote dü ixilka hontü, edo arrahartü eta ontsa betatxatü phürü? Balinba!

— Junes CASENAVE-HARIGILE Santa-Garazikoa, orai orok eza-gützen dügüna, olerkaria, pastoral idazlea eta Euskaltzain ürgazle berria.

— Jean EPPHERRE Altzaiarra, Atarratzeko erretora, gramatikalaria, hiztegilaria, olerkaria ere halakordian... Haren obretan: "Etxahun koblakaria".

— Thomas UTHURRY Atarraztarra, Arraine kartielekoa, Baionako seminario handian erakasle dena, kazetetan lüma hona erakutsirik orai ixilik dagoena...

— ERREÇARRET Hautzarra, Altzaiko erretora, litürgia lanetan langile ixila.

Kantore hontzaleetan:

– ETCHECOPAR-ATTULI Barkoxtarra, kantore famatü zonbaiten hontzalea (Pilotarien-Biltzarra, eta beste...), aspaldi hontan zoritxarrez ixilik dagoena

– Roger IDIART, lapurtar apez, xiberotar berria, kobla eta kantore xorrotxen aita

– Beñat SARASOLA, Lapurtarra eta xiberotar berria hau ere, kantore idazlea eta kantaria

– Niko ETCHART Altzürükükoa, kantore egilea eta kantaria

– BEDAXAGAR Ordiñarbekoa nork ez dü ezagützen? Kobla idazten ere badaki. Eia, Iparragirre, üsüsago lümaz, edo aho-mihiz ere berdin...

– AGUERGARAY Muskildiar fraideak ere txestaerazi daikü olerkian lüma xotil bat. Orai apetitia piztürik, ez gitzala hortan üt.

Izen hanitx, apez hanitx, eüskal literatüra güzian bezala. Baina laikoak ere ez gira hain güti. Obra hanitx, obra llabürarak, barreat, bildü beharrik. Katexima eta gramatika, ütülpen ere bai, hargatik ez hainbestekorik.

Obra orijinalak ez dira güti: pastoral, olerki, ipui, alegia, etnologiako lan... Hots, herri-literatüra franko aberatsa. Badakigü hau ez dela aski, nahiz beste zerbaiten lürra den.

Azi hanitx badügü, baina ütza nasai eta zohirik ez oranokoan. Zerbait haboro behar dügü: beste popüliek bezala, literatüra gorago eta kültoago bat ere behar dügü Eüskaldünek. Hori xiberotarrez egin daitekea? Bere partea phürü ekarri behar dü Ziberoko eüskararak ere.

Lürra haz eta emenda dezagün, aziak ontsa haz, eta literatüra gorago eta nasaiago bat ardietsiren dügü agian.

Erran dü: idazle hanitx, obra hanitx, baina obra llabürarak, ez orano haziak. Horrek erakusten daikü amatürarak girela:

– denbora gütiegi dügü ikasteko eta idazteko

– ez gira hortarik bizi, irakurle güti dügülaokoz.

Eüskal obrak nola bil, püblika eta zabal? Hortako behar da denbora, erran nahi baita dihari. Behar dira gisa orotako lagüngoak, bereziki poterea dienen ganik. Holako lagüngoarik edirenen dügia Eüskal-Herrian, eüskaraz idatzi lanentzat?

Orai üdüri lüke zerbait ardietsiren dügüla Parisetik eta Bordeletik. Baina beste hainbeste ükenen dügia Pauen eta Eüskal-Herrian, aments?

Lüma eta papera baino zerbait haboro behar da literatüra baten hazteko. Emanen daikiaia?

OHAR BAT

Irakurlea ohartüko da hemen bi ortografa mota erabili direla xiberotarrez:

1. Bata, ETCHEBARNE Altzürüküko jaun errejentaren, Frantxua DASCON-en eta aita Junes CASENAVE-HARIGILE-ren mintzaldietan.

2. Bestea enean.

Lehena, xiberotar ortografa ezagütiena, diala jenerazione bat püntian ezari zien ordüko idazleek, bereziki LAFONT eta Guillaume EPHERRE euskaltzain osoek.

Bigarrena, Euskaltzaindiaren oraiko ortografa da. Euskaltzain bezala, eginbide zait honen egartea, izan dadin Batuaz, Lapurtarrez, Baxe-Nabartar bi euskalkietan ala Ziberotarrez. Baina ez dütt xiberotar idazle lagüner inposatü nahi.

Euskaltzaindiaren ortografa arrazukaz honar erazi ez düdano, aholkü hau emaiten/düt Ziberotar güzier:

Nola nahizka eta bakoitzak zien ogüz izkiribatzea ützirik, lehen ortografa hura phürü ikas eta erabil ezazie. Gero aisa igaranen zirade Euskaltzaindiaren ortografala, liferentzia ttipiak baitira bien artekoak.

Bestelan zer agitzen da? "Pastoral" hitzaren idazteko hogei-ta-lau (24) manera ediren dütt! Norat ari gira gaixo Xibero ttipiñi hontan, ber hitza 24 gisetara idazten dügüno?

Hortaz xehetarzün haboro emanen daiziet "Euskararen lekuko" bezala Euskaltzaindiak agertüko dian *BELAPEYRE*-ren xiberotar lehen "Catechima laburra" delako libürían.

BIBLIOGRAFIA LLABURRA

ESPIL - Xoro: B.S.V.A.P., 1969, 24, N. Alzola.

BEHETY: Gure-Herria, 1927, 1929, 1931, 1932, 1933.

HASTOY: Gure-Herria, 1935, 1936, 1937.

P. LANOUGUERE, Pette Chibero: Gure Herria, 1924, 1930, 1934, 1935.

J.B. MAZERIS: Gure Herria, 1927, 1931, 1932, 1933.

PICOCHE: Gure Herria, 1924-1932.

L. LIGUEIX (+ 1935): Gure Herria, 1928, 1957; Aintzina, 1942.

G. EPPHERRE: Gure Herria, 1931, 1952, 1953, 1974.

J. MIRANDE: goian ikus, laugarren orrian.

JEAN BAPTISTE ARXÜ IDAZLEAREN MENDEURRENA

Maule, 1981-VI-27

Jean Haritschelhar

Jaun auzapeza, andereak eta jaunak,

Gaur, hemen bilduak girenez geroz, Ziberoko hiri nagusi hontan, SU AZIA batasunak gomiturik, nahi nituzke bi hitz erran, Ziberotarrerri erakusteko zer den Euskaltzaindia eta ere zer harremanetan sar daitezkeen Ziberoa eta Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia egina izan da, izenak salatzen duen bezala, euskararen zaintzeko. Sortu zen, duela orai 60 urte baino gehiago, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako lau diputazionen nahiaz, lauek erabaki baitzuten beharrezkoa zela, ez bakarrik gure euskara maitea zaintzeko baina ere bultzatzeko, holako elkarte berezi bat hamabi ziren lehenbiziko euskaltzainak; heietan iparraldekoak hiru, aita Lhande ziberotar euskalkiaren lekuko. Geroztik hogoitalauetarat goititu da euskaltzainen kopurua eta ziberotar euskalkiak beti ukan du bere euskaltzaina: aita Lhande-en ondotik, Guillaume Eppherre Altzürükütar jaun kalonjea eta, hau zendu zelarik, Jean Louis Davant erakaslea.

Beraz, ziberotarra osoki sartua da Euskaltzaindian eta ez du Euskaltzaindiak baztertu nahi ziberotar euskalkia. Diote batzuek —badira holakoak edozoin erresumatan— euskalkien kontra dela Euskaltzaindia eta euskalkiak nahi dituela hil. Arrazoinik gabeko errana eta diot goraki —bereziki gaur Ziberoko hiri nagusi hontan— Euskaltzaindiak ez dituela sekulan arbuia euskalkiak, ez dela behin ere izan eta ez izanen euskalkien etsaia. Nola erran daiteke holakorik? Nork ez du ikusten, eta denbora berean ezagutzen, euskalkiak direla euskararen aberastasuna; haieri esker hobeki aztert daitekeela zer izan den euskara iragan denboretan, zer den orai ere. Beti izanen da euskalkia, orai arte izan den bezala, haur bakotxak amaren ezpain sakratuetarik entzun eta ikasi duen mintzaira, familian mintzatzen den hizkuntza, ama eskoletan erabilia izanen den lengoaia, herriak bere egun guzietako harremanetan eskuarki atxikiko duena.

Bainan nork ez du ikusten eta ezagutzen —ez balin baditu gogo bihotzak itsutuak— beharrezkoa digula eskolarentzat, irrati eta telebixtarentzat, literaturarentzat denek irakur eta konpreni dezaketen euskara bat, euskara batu bat.

Diot “eskolan”, emeki emeki beharko baitu haurrak bere euskalkia ongi ezagutu-eta, euskaldun guzien arteko lokarri izanen den euskara batua ikasi.

Diot “irrati eta telebixtan”, ez baitaitezke asma zazpi irrati eta zazpi telebixta Euskal Herri osoan, bainan denek ulert dezaketen mintzaira bat.

Diot “literaturan”, euskaldun irakurle guziek onart dezaketen euskara literario bat, biharko munduan, mail goragoko literatura baten sortzaile izan baitaitezke.

Horiek hola, geroari begira, ez dugu ahanzten ahal ziberotar euskalkiaren berezitasuna eta aberastasuna. Nola ahantz, duela bost mende baino gehiago ziberotar olerkari batek “huntü” zuela geroztik kantatzen den “Berreterretxen khantoria” ez baita hori bakarrik izan lur hontan sortu den kantore xarmagarria? Nola ahantz ere Ziberoko herrian jokatu diren “phastoralak” eta azken hogoita hamar urte hauetan emanak izan direnak Etxahun Iru-ri eta aita Junes Casenave idazleeri esker? Nola ahantz —nik segurik ez— Barkoxeko herriak eman diola euskal literaturari erromantiko olerkaririk handiena? Berenak bere utzirik ziberotarrerri, jakin dezatela duten berezitasuna eta aberastasuna ez dela bakarrik haiena bainan euskaldun guziena. Jadanik badakite: ikusi baitituzte Euskal Herriko zazpi hegaletarik heldu euskaldunak pastoralen mirestera; azkena, “Iparragirre”, Euskal Herri osoarena da, nahiz ziberotarrez idatzia.

Geroari begira ere, ez du Euskaltzaindiak ahanzten Ziberora: “Atlas linguistiko” bati buruz hasiak dira aparailuak eta obra baliosa hori nahi luke bultzatu beharrezkoa baitugu gure euskalkien hobeki ezagutzeko eta daukaten tokiaren hobeki aztertzeke. “Euskararen lekukoak” deitu liburu sortan agertuko dira ere ziberotar idazle zaharren obrak, hala nola agertu ziren, Euskaltzaindiaren laguntzari esker, Etxahun Barkoxeren olerki eta kantuak. Hortakotz beharko dira langileak, ikertzaileak, eta Euskaltzaindiak, bi besoak zabalik, “ongi etorri” edo “hunki jin” maitekorrena eginen die.

Ikusten duzuen bezala, baditu Euskaltzaindiak bere xede eta helburuak: Euskararen zaintzeko eta bultzatzeko biltzen ditu Euskal Herri osoko euskaltzain oso eta urgazleak, mugari kasurik egin gabe, hori baita Euskaltzaindiaren berezitasunik handiena. Hortakotz haren menpean behar dugu denek bat egin ziberotarrek manexekin, Iparraldekoek Hegoaldekoekin, beti gogoan atxikiz, euskalkiak diferenteak badira ere, euskara bat dela eta hizkuntzaren giblean kultura bat daukagula. Gure ikerketek, linguistika mailan, literatura mailan, etnologia mailan, erakusten daukute, atzo baino hobeki gaur, gaur baino hobeki bihar, euskaldun guzien arteko lokarriak direla hizkuntza eta kultura, eta Euskal Herriaren batasuna hizkuntzan eta kulturatan datzala.

J. B. ARCHU

Altzürükü, 1981-VII-28

Etchebarne Dominika, Altzürükiko errejenta

Phüntü hetan Napoleon 1-ena zen Frantzia-ko nausi. Gerla hanitx irabazirik, heñik goreniala heltürik zen. Hantik aintzina geroago eta aphilago.

Archu, Altzürükün sorthü zen 1811-an. Izen hori bada orano herri huntako etxe batetan (1). Artxiba zahar elibatetan horren sortzia aiphatürik da. Aita zurgin zian. Amarentako ez dakigü gaiza handirik, salbü deitzen zela “Poupoune” irakurtzen ahal dügü “Etat civil” delako paperetan. Maneraren arabera izen gaintiko zerbait bezala zian.

J. B. Archu-ren haur denboraren gañean, gaiza güti jakin ahal izan dügü. Haren aitak ez zakian ez izkiribatzen ez irakurtzen, zeren khürütxe bat eginez sinatü zian, merian haurren presentatzian. Ikhusten dügün bezala, holako familia simple batetarik elkhitzez, mereximentü haboro baizik ez dü gure herritarrak, heltü den kargietarat heltzeko.

Eskolan nun ibili da? Phentsatzen ahal dügü herrian berian bazela ordünkorik eskola zerbait. Bena ez dügü jakin ahal izan zer eskoletan ibili den, haboroziz zer plantaz Altzürükütik juan zen.

– Errejent kargiala heltü zen 1834-ian. Lehentze Bordele-ko eskola libro batetan bere kargia hartü zian.

– 1836-ian ükhen zian eskola püblikuan aritzeko parada. Ordian jin zen La Réoleko herrialat kargü horren juanarazteko 14 urtez.

– “Bachelier” igaran zen 1837-ian.

– 1850-ian inspektür igaran zen La Réoleko arrondizamentü hortan berian. Ofizio hori etxeke zian 1877-iala artino.

Bere lanaz kanpo ükhen dü beste kargü zunbait:

• Izan da La Réoleko kuntsellüko 1851-atik 1870-iala artino. Arte hortan bi aldiz axüantgoa etxeke dü, 1852-tik 1855-iala eta beste behin 1865-etik 1869-iala artino.

(1) “Arxia”.

- “Caisse d’Epargne”-ko gehienetarik izan da urthe zunbaitez.
- Bere arrondizamentuko “Comice Agricole” delakuaren sekretari jeneral izan da beste urte zunbaitez.
- Beste uhurezko kargü ere etxeki dü.

Artxibetako paper zaharretarik ikhusten dügü uhuraturik izan dela kargü eta medalla ükhenez, untsa kuntsideratürik beitzen. Bere lanaren aldetik irakurtzen ahal dügü üsü, gizon phestia zela, zinez eskolatürik, haren bizitze manerarentako deus ez erraitekorik, jüjamentü xüxena, bere peko zütian errejententako bardin heñ bat gogor, bena beraren bürüzagi baten erranetik, aisaxka oro untsa eginik atzamaiten eta errejentek hura behatzen. Bere lanetik kanpo, ber gizontarzüna irakusten ükhen behar zian, zeren bethi aiphatürik dira Archuren mereximientiak. Orotan behatürik zen gizona izan behar zian.

Salbü paper zahar batetan aiphatzen die haren etsai bat: Jaun suprefeta. Bere inspektür kargia zian denboran, bere peko eskola batetan izan zen zerbait afera. Archu, xüxen nahi beitzen izan, suprefetaren kuntre jelkhi zen eta xüxena baliarazi. Gero, prefosta, bestiak malezia etxekitzen zaion (ez da muda hori atzokua). Suprefetak nahi izan zian lekhüz khanbiarazi ere. Bena Archu-ren althia etxeki zien akademiako inspektürrek eta rektürrek, berri hunak emanez ministroari. Archu La Réole-n baratü zen.

– Bere familiaren aiphatzeko, badakigü ezkuntü zela 1850-ian Jeanne Seze-kilan. Alhaba bat ükhen zien. Berantago hura ezkuntü zen Musde PIET-ekilan. Alhabaren senharra, La Réole-ko kolejiuan matematika profezür zen. Bere inspektür kargia ützi zian phüntü hetan, emaztia eri handia zian.

– 1881-ian begiak zerratü zütian. Bena haren izena aiphatzen badügü egün, ehün urteren bürrian, harek ützi deikün obraren gatik da.

– 1847-an berak 36 urthe zütianian izkiribatü zian bere lehen libria. Bernat Detxepare-k 1545-ian izkiribatü neurthitz elibat üskaraz, Archu-k frantsesez itzülirik agertarazi zütian Bordele-n. Diotenaz ez zen lan hori eta jarraitzen zaion itzülpena hoberenatarik. Orano gütiago horren ondatik agertarizi libria.

Hura zen “Proverbes Basques recueillis par Arnaud Oihenart”, bigarren agertaldia, arra hunkirik eta emendatürik frantses itzülpen batez, Archu-k agertarazi zian Paris-en (hau ere 1847-an). Halere Archu gaztiak egin bi lan horietan irakusten deikü üskal literatürarentzat zian gar arraroa.

Bere denboran La Reole-ko errejentak (ez zen orano inspektür) üskara bezain maite beitütü üskaldünak, haientako agertarazten dü La Reole-n berian, Pasquieren etxian, librü lodi bat, berak eginik. “La Fontainaren alegria berheziak neurthitzez frantsesetik uskalat itzülük”. Lan hori 1848-an. Zertako Archu-k egin dü lan hori?

Beraren erranetik horren aintzin begian “Frantzia güziak altxatzen duen gizon horren ohizpenaren altxatzia Uskal herriaren erdian” dü xerkhatzen. Gero nahi zian bere herritarrek “frantses mintzajia ikhas ahal dezaten aisago”.

Bethi ber ideaia hortan aiphatzen dü ere, bi mintzajetan izkiribatürük ez dela librürük. Archu berak erraiten dü: “Uskal Herriko haurrek beharlukete, hola da ja ene ustea, “habil enekinkobat”, gramatikabat zoinekin ikhas ahal dezen berek frantses hizkuntza.

Lan horri бүрүз plantatüko da librü huntan; “Aintzin solas” lüze bate-tan emaiten dü üskararen giltz zunbait, haiekin, hantik aintzina frantsesialat igaraiteko.

Berriz aipatzeko La Fontainaren aleghiak, ez zen ez Archu lehena, horien üskaraz itzültzale, haboroziz azkena.

Archu beno lehen Agustin Iturriaga, Hernaniko aphez irakasle eta poeta, Gipuzkoarrak (1778-1851) Donostian agertarazi zütian bere obrak.

Gero Archu, aiphatü dügün gure herritarra.

Ondotik bada Goyhetehe, Urruñako apheza; Baionan agertarazi dütü bere lanak.

Izan dá geroztik beste franko. Ahal dügü aiphatzen Zaldubi-Adema, Atharratzeko aphez nausi izan zena, Léon Léon Ahazpandarra, Fabien Has-toy Atharraztarra eta mentüraz ezagütiena Oxobi.

Bena orenen artetik Altzürüküko semiak uhurezki irauntsi dü eta haren lanak arrakasta ükhen.

Huna orai **Belia eta Axeria** Archu-k üngüratü bezala:

BELIA ETA AXERIA

J. B. Archu

Zuhain baten kukulan jarririk,
 Bele jauna zagon gazna bat moskoan.
 Axeri jauna usainaz deirurik,
 Gelditu zen Zuhainaren ondoan.
 Hitz hoiek diotzu hegaltariari:
 “Egun hon, agur, gure jaun Beliar!
 Zoin polit, zoin eder den!
 Egiazki zure botzak zaiaren
 Balin badu iduria
 Bortutan diren ihizi ederrenen
 Zu zira erregia!”

Beliak hitz hoeitzaz hanturik,
 Bere botz ederra erakutsi nahi du;
 Mosko handi bat zabalturik,
 Gazna lurrerat uzten du.
 Axeriak gazna atzamanik,
 Beliar erran zuen ordian:
 “Jakin zak, jauna, lausengaria,
 Hari beha denaren kostuz mundian,
 Betidanik izan dela jankidia.
 Ene lezioneak, arauz, balio dik,
 Gazna bat segurki”.

Beliak, beranzki,
 Bere tontokeriaz ahalketurik
 Zin egin umen zuen
 Geiago etzutela atzamanen.


*Christiane Etchebarne
 Altzürüküko Dominique Etchebarne
 errientaren alaba gazteak emana.*

– 1848 urthia Frantziaren historian urthe handia agitü zen. Bigarren errepublika sorthü zen. Errepublikazale handi izan ziren Uskaldün zunbait. Bata xiberotarra, Agosti Chaho, Baionako “l’Ariel” deithü kasetaren bürüzagia. Badakigü azkenian ez ziela garhaitü ez errepublikak, ez Chaho errepublikazaliak, Etxehun Topet-en lagüntzaren gatik; bena idüri lüke, behin bederen, Chaho-ren althia hartü ziala Archu-k ere.

1848-an Fore eta Lasserre-nian Archu-k agertarazten dütü “kantü patriotikak”, “Marseillaise” eta “Chant du départ” üskaraz itzülirik. Bai eta beste bi khantore, bata Uskaldünen eta bestia errepublikazalen uhuretan.

Halere Inperadora (aldi huntan Napoleon III-ena) nausitü denian, Archu-k üzten dü politika eta berriz Uskaldünen eskolatzia goguan, lanian hasten da.

– Ehun urthe lehenago, Sarako medezi, ETCHEBERRI deitzen zenak, egin zian latinaren ikhasteko gramatika bat. Haren ber manerala, Archu-k plantatzen dü gramatika bat, “Uska eta frantses gramatika, Uskal Herriko haurrentzat egin”. Agertarazi zian Baiona-n, Fore eta Lasserre-nian, 1852-an. Bizpalau agertaldi izan ziren eginik igaran den mende hortan.



J. B. Arxü idazlearen mendeurrenaren oroitarria (Altzürükü, 1981-VI-28)

Usü erranik izan beita errejentek diela üskara eho, zunbaitek heltübada bai, bena Archu bezalakuek ez.

Berak dion bezala, hartzen dü lehenik ikhasia, gero igaraiteko ezagützen ez deniala. Hala hala üskaratik igaraiten da frantsesialat. Aisago inthelegatze-ko emaiten dütü zühür hitz ejerren zunbait eta Uskal Herriko historiaren berri zunbait. Hala nula Dagobert erregiaren tropak izan ziren zaflatürük Xiberotaretzaz.

Bethi, güti edo aski, abüsaraztez xerkhatzen dü ikhasaraztia, Archu-k.

Beste lan batetan Archu behar dügü orano aiphatü. Napoleon III-gerrenak bazian kusi bat, Lucien Printzia. Hura Urrustoi-ko ABADIA jaunaren adixkidia zen. Printzia üskarari interesatü zen horrekin. Gero Abadia jaunak atzaman zaitzon lagüntzaliak üskararen lantzeko. Bat, xiberotarra, Emmanuel Inchauspé apheza, Zunharretako seme, jakintsü handia (1815-1902). Bena hunekin Printzia gaizki jin zen. Abadia-k Bonaparteri ezagütarazi zeion Archu. Harek galthegin zeion xiberotarrez ützültzia Biblatik Ruth-en libria. Archu-k bi hilabetez lan hori bürialatü zian eta Bonaparte-k eskerrak igorri zeitzon Abadiari, gidari hunak eman zeitzolakotz.

Halere Archu-k ez zian herabe bere errepublikazale sentimentien gatik izkiribatzeke Lucien Napoleon-i bere lanaren presentatzian:

“Lucien Napoleo
Printze Uxkara dakienari
Printze jakintzu paregabia
Zureganat, ni Ruth-en libria,
Ziberuako zaia jauntzirik
Hullantzen nuzu ahalketurik.

Botz nundukezu, so-tto bat egin
Nahi bazineit. Lehen hunki-jin
Egin zeiola Booz handiak
Ruth gaixuari, dio ixtoriak

Ber hunki-jina ukhen baleza
Ziberaturrak, haren bihotza
Iratzar laite Jaun Luziener
Gor’ Altxatzeko laidoriuen.”

Ruth-en libriaren ondotik, Bonaparte-ren kuntü itzüli zütian xiberotarrez Salomon-en kantika, eta Jonasen libria. Archu hil ondotik agertü ziren obra horik Baiona-n 1888-an.

Azkenian J. B. Archu üskal langile handiaren beste lan balius bat aiphatü behar dügü. Egün horietan Elkar-rek, Baiona-n agertzen dü Francisque Michel jakintsünaren librü bat, zinez aiphatürük dena. Jakintsü hori Archuren denborakua zen eta biak harremanetan ziren. Bena diotenaz, ez zütien ez

ber manerala ikhusten Xiberoko maskaradak. Archu-ren ikhuste berhezia "Le Messenger" Baiona-ko kasetan agertzen da hain xüxen, zinez baliusa beita guretako ikhustia, zer gisatara khanbiatü diren Xiberoko maskaradak Archu-ren denboratik orai artino. Hori beste phüntü bat Archu-ri zor dügüna.

Aurthen ohitzen gira, orai diala ehün urthe, Archu-ren hiltziaz. Altzürüküko seme horrek hartze zian Euskaltzaindiak eta Sü-Aziak egiten dakoten uhuria eta ohitarazaldi hau.

HARTZAREN KANTORIA

Jean Pierre eta Michel Eppherre anaiek

Altzürükün kantatua

Malür bat heltü zaikü Basabürían,
Egiáz erraitea Santa Grazian,
Prima eder bat hartzak usuki Pusunpes altian,
Bena hanitx irus izan da jan eztianian.

Otsua izan balitz harakoitia,
Ihurk aski zükian horaren haxitzia
Bena hartzari nor leiteke mentüra haxitzera,
Zeren eta hura beita oro malezia.

Prima handi haren aflijitia
Egin zereionian hartzak usukia
Mentüraz eta kosten ziozü kolpü hura bizia
Gangrenatzen aisa beita hartzaren usukia.

Erran Maider, beha hadi ene erranari,
Peko eihera borta zerra ezan hobeki,
Hartz handi hura jiten bazain, Ehüsarre aldeti
Zepo on bat heda eta hatzaman ezan zankoti.

Kunplitü dienian hilabetiak,
Lau bost sei zazpi zortzi bederatziak
Sendotüren ziriozü primari doloria
Eta gero kantatüren Hartzaren kantoria.

MA-LÜR BATHELTÜ ZAI-KÜ BA-SA-BÜ-RI-AN,
E-GI-AZ ERRAI-TE-A SAN-TA GRA-ZI-AN
PRI-MA EDER BAT HARTZAK U-SU-KI FU-SUN-PES AL-TI-AN
BE-NA HANITX I-RUS I-ZAN DA JAN EZ TI A-NI-AN